



Mintzalaguna egitasmorako dinamizatzailea behar da Hondarribian
Euskaltzaleen Topaguneak lagun bat kontratatu behar du epe laburrean.

Deskribapena

Arloa: Euskalgintza / Euskal Kultura

Egitekoak :

- Hondarribiko **MINTZALAGUNA** egitasmoa dinamizatzea.

Zer da Mintzalaguna?

- Herrian ahozko euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak eta mintzapraktika egin nahi dutenak astean behin, ordubetez, talde txikitan biltzen dituen programa da.

Eskaintzen da:

- Euskaltzaleen Topaguneak egindako kontratua 2022ko ekain amaiera arte, astean 20 orduko jardunarekin.
- 2022-2023 ikasturtean jarraitzeko aukera.
- Topaguneko aholkularitza eta koordinazio lan-taldean parte hartzea.
- Lan hasiera berehalakoa, irailaren 15ean.
- Lan orduen banaketa malgua egitasmoaren eskakizunak kontutan izanda.
- Ohiko lan lekua Hondarribian.

Baldintzak

Eskatzen da:

- Euskara ongi menperatzea: C1 maila izatea edo baliokidea, edo titulua izan ezean epaimahaiak ezarritako euskara proba gainditzea.
- Harreman pertsonaletarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.
- Ofimatika programak erabiltzeko trebetasuna izatea.
- Gestioan eta planifikazioan eskarmentua izatea.

Baloratuko da:

- Mintzapraktika egitasmoetan eskarmentua eta ezagutza izatea.

- Euskara Elkarteen mugimenduko ezagutza izatea.
- Soziolinguistikari buruzko ezagutzak izatea.
- Teknologia berriak erabiltzeko trebetasuna izatea.
- Pertsona dinamikoa eta autonomoa izatea.

Hautaketa prozesuaren jarraibideak

Curriculumak aurkeztea

- Curriculumak mintzalaguna@topagunea.eus helbidera bidali behar dira. Motibazio gutunak eskertuko dira.
- Aurkezteko azken eguna: 2021eko irailaren 9a, 14:00ak baino lehen.
- Hautaketa irailaren 15a baino lehen egingo da.

Hondarribian, 2021eko abuztuaren 30ean